

Arruitz'ko lagun baten gorantz

TXOMIN GARMENDIA.

Apirillaren 10'an nere txoko onetan, Juanito Marizkurrena zana-ren berriak astindu nitun eta badakit, bere alargunarengandik asita jende askori gogozko izan zitzaiola eta eskerrik asko biotzez. Indar berriak sortzen dizkidazute irakurle maiteok, eta noan aurrera beste lagun zaar bat gogoratuz.

Bertso-zale asko ezagutu izan degu Naparro'n; baiña zaletue-netako bat, Arruitz'ko Alejo Azpiroz dala esan bear. Beraren bidez amaika aldiz joan giñan Lekunberri'ra eta inguruetara. Bera ez bazan karguduna ere, beranduxeago edo goizeago an agertuko zan Alejo'k, eta etxera abiatu bitartean an izango gendun ondoan izketa gozo askoarekin. Zaletasun ori jaiotzez ekarriko zun noski, baiña Gipuzkoa'ko Goierrin lanean ibilli zan, eta Lazkao Txiki zanarekin lagun aundia egin gaiñera; eta lenaz gaiñera or erabat ezkondu zan bertsolaritzakin. Mutil-zar euskaldun jator baten sellua berekin du Alej'k eta Lazkao Txiki ere ala zanez, biak joaten ziran askotan Joxemiel joan bear zun lekura. Ari ere urteak aurrera dijoazkio eta azkena itzegin nuenean asko etzala ateratzen esan zidan.

Bera bizi dan etxean, Arruitz'en, beitegi ikusgarria dauka illobak eta osabari ere ez det uste entretenigarrik faltako zaionik. Ondo konpontzen dirala ikusita, zer gauz pozgarriarik? Ezaugarri geiago ematearren, Juan Krutz Azpiroz «Arruitz'ko Txikia» zanaren lengusua degu

Alejo. Bat korrikarako zaletu zan bezela, bestea bertsoetarako jarri zan. Ez bai degu entzule bakarrik Alejo, kantatu ere egiten bai ditu. Orain dala urte mordo bat, dozena bat laguneko taldea, Lazkao Txiki eta Alejo barruko zirala, Apirilleko Sebilla'ko peritara joan giñan; eta pestak egin genitun. Gazteiz'tik gendun bertarainoko egazkiña eta naparraren komeriak etziran nolanaikoak. Gero, guk aren kontura par egiten gendun, baiña gerok nola joan ote giñan? Batzuk, ikara agertu egiten dute Alejo'k bezela, eta besteak gorde. Baiña... Trena, karrillaren gaiñean eta automobilla kamioan bezin seguru joaten dala egazkiña aizearen gaiñean esango digute, baiña nork sinistu? Goian zera eta beeran lurra edo itsaso ikusten ditugunean ez al gera geienak pentsakor jartzen?

Bost eguneko txangoa izan gendun Sebilla'n ezerik, Jerez de la Frontera eta inguruetan ere gozatu giñan. Izan ere kanpo aiek ederrak dira benetan. Iritzi ezberdiñak ekarri genitun ordea Andaluzi'ko uri aundi artatik: Lazkao Txiki zanak zion, naiko diru baleuka Sebilla inguru artan etxi txiki bat egin eta antxe biziko litzakela emengo asarre eta saltza gustitatik aparte; eta zeozer esaten zula esango nuke. Alejo eta gaiñontzekoak, berriz, pozik itzuli giñan geure txokora. «Egia alde guztietan / leku onak badira / baiñan biotzak dio / zoaz Euskalerrira». Besarkada bat Alejo, ea noiz egokitzen geran itz asperitu bat egiteko.

BERRI ONA ARTZALLUZ'TAR JOXEMARI

Etengabeko billaketan

«Nire billa ibilliko zerate» (jn, 13,31-33a. 34-35)

LUR onetan bizi geran emakumeok gauza askoren billa gabilta; egiaz, ordea, zeren billa gabilta? Ba al dakigu zer nai dugun? Gure gogoaz ez ote da munduko ainbat gauzetaz lilluratu?

Gizakia, gizaki denetik, maitasun billa dabil... zer nolako maitasuna nai du, ordea, gizakiak? Gizakia Jainkoaren billa dabil... Zer nolako Jainko nai du gizakiak? Egiaren billa dabil gizakia... zer nolako egia nai du, ordea, gizakiak? Pake billa dabil gizakia... zer nolako pakea nai du, ordea, gizakiak?

Billa jardutea, beraz, gizonaren eta emakumearen eginkizun edo jarduera nagusia dela dirudi. Egunaren eguzki printzak ikusten asten geranetik eriotzak eguzki ori bera itzaltzen duen arteaiño, beraz, billaketa utsean ari da gizakia.

Eta jakiñaren gaiñean aurkitzen gera: Jainkoak mundua eta mundutarrak maite gaitu. Ori da egia. Jainkoak maite bagaitu, ain zailla izango ote zaio gizakiari Jainkoarekin eta Aren maitasunarekin topo egitea?

Bertze egia au ere gogoan izan bear gure: Jainkoaren gogoaz da mundua salbatzea. Zer arrazo egiten ari gera mundua obetzeko eta edertzeko agindua dugunok? Munduan pakearen sustraia ez dira indartu, egia erabat narrastu dugu, indarkeria nagusitu zaigu eta elkarrenganako maitasuna eta elkarri zor diogun begirunean baztertu ditugu...

Erranak erran, onoko galdera au sortzen zait: zein da kristauon ezaugarria? Begira, erakunde bakoitzak izan oi ditu ezaugarri nabarmenak. Zein da kristauona?

Egia da Jesusek elkar maitatzeko agindu zigula (eman eta utzi zigun agindu bakarra, naiz eta gero elizak milla jarrai dizkigun arren). Zer ari egiten ari gera maitatzeko aginduarekin?

Elizkizunak (anitzetan aspergarriak) al dira gure ezaugarri? Egiten dugun lana? Indarkeria eta gorrotoa gure artean nagusitu izate?

Pazkoak, Jesus berpiztuaren bizikizunak, guretariko bakoitza erabat aldatu bear luke, pazkoa izan bear bai luke gure ezaugarri nagusia, pazkoa izan bear bai luke gure izatearen eta bizitza beraren ezaugarri nabarmena. Ortako, ordea, gure barrua prest izan bear.

Jesus berpiztuaren indarrak eraberritu eta pakeatu gaitzala. Maitasunak elkartu gaitzala.

NAPARROAN BA DITTIGU BETIZUAK. (BEIKIAK)... (1)

Zintzo zaitudan irakurle: Kaixo


IREBER.

Nere asmoz eta jakitez idaz-lanetan erabiltzen dedan argitasuna eta gaiak atsegin zaizkion batekin topa egin nuen leengo egunetako batean eta solaxean ari giñelarik eta alako nere ez uste batean zera esan zidan: zu Ireber, ea zerbait ba ote nekien edo irakurri aal nuen gure Napar goi mendietan, eremuetan, larretan bazkatu duten betizuari (beiki) buruz, alegia.

Eta, ezezkoa izan zen nere leen erantzuna. Geroragoan nere sapaiko oroimenak astinduaz, atxurtuaz au bururatu zitzaidan: jakitunen esanetan, beiki auk, betizuak alegia, Auñamendiko larre kateetan ezezki, Euskalerriko beemendietan, larre zabaldietan bazkatzen zutela. Garai batean, emengo basobei ugariena, bei gorri, gorria illajezen omen zen.

Gure aitagoien xarrak, Joxe Miel Barandiaranek (Aundiak) jaso aal izan zuen eta oni buruz bere esana au izan zen: bei gorri, beiki au Arri-aro berritik, gure Kristo baiño 3.500 urte leenagotik, Euskalerriko larre mendietan azienda mota onek jaten, bazkatzen zuela, dakitenen esanetan, alegia.

Irakurle: au esatera noakizu, «Diario de Navarra'ko Euskera idazkunaren iskribuek, atalak daramazkien ardura-dunak, betizuariganako idaz-lan onik ikusiko balittu, idazkun bat baiño gehiago izanen dittula eta «Diario de Navarra'ko euskeraz idatzitako orria, zuk ere irakurle, atsegiñ badezu, gaur irakurtzen



ari zeran idazlan au izanen da urrengoetan azalduko diren ispilla... gaiek merezi dutela uste dut.

Baita ere jakinarazi nai ditzut, betizuak Naparroan bazkatzen duten, mendi larreen izen batzuk: Leitzalarrea (Leitza), Anizlarre, Ainarbe, Etsoila eta Manduegiapzi

(Goizueta), Ibardin (Vera de Bidasoa), Gorramendi (Baztan), Olague, Baraibar, Zarieta eta Artxubuko, (azken bi erri auetan gaur egun gizakirik ez da bizi), Aotiz erriko Ipar-Sorkaldean daukazu.

Gaurkoz au dezu, urrengo iskribu-atala Betizu+Beigorri illajezen izanen da.

Alde txikien eskubideak

LATXAGA.

Nafarroa Gertatu Zaiguna. Ortzen ikusten ditugu gizase-meak izkuntz zabaldu bat mintzatzen dutenak eta garai berdinean bertz izkuntz txikiak egiten dituztenak, adibidez hebreu, ijito, arabea eta abar. Erri txiki-ko izkuntza oiek ez ditugu zohoratu bear bestiek baño txikiagoak dauzkatelako. Oien alde lana egin bear daukagu ere, kezkarik gabe. Utzi dezaiegun habesa billatzen. Bestela, garbi esan dezagun alkarrekin nola konpontzen diran. Ortzen ikasten da, nola azkarrek edo motelak izan. Guk besteen izenean babesten asten ba gera, ortzen oituko gera, poliki, bestien izenean itz egiten. Naiko nazkagarri geratu gaitezke. Egitan ez diegu mesede ederrik egiten. Garrantzi aundiko lan ori beren eskuetan egiten uzten ba degu, mesede ederra egiten zaie. Elburu au lortu bear diegu danez gain. Nola ez? Guk ere asko egin dezakegu enda txikien alde. Buruz lana egin gai auen alde eta eragozpenak bazteratu. Aldunak alduna egin dezala. Garrantzi aundiko lendarbiziko gauza, gogoan euki zuen eskuetan ona dana, alde txikiak laguntzeko, bear



bezala. Bigarren; Zuen billera nagusietara maiz deitu. Nolanai deituak daudela, berri galanta bezala artua izanen da dei ori.

Guk emen lan onetan alegindu gerana egiten egin. Euskaraz eman nai genien izen berexia jarri. Erderazko esaldiak era bat baztertu nai genian, adibidez «Etnia txikiak», Orren orde «txikien minoria» bururatu zitzaizkigun. Alkarrekin asmatu bearra dago. Itz egoki baten billa gabilta.

Deituak daudela, nolabait garautzi aundi baten nagusit-

za adierazten zaie.

Irugarren; gure billeretan maiz aipatu enda txikiak eta zabaldu aien yaingoak, azken ontan egindako emaitza agestu. Naiko azkar ulertzen dute gure arditxoak. Gaur egun galera bat egin dezakegun danen aurrean: «Enda txiki oiek ba ote dute norbait, Santurik ba ote dituzte enda txikiak.

Gai au, emen eta an, erabiltzen dugula Alde-txikien laguntzaren billa ari gera lanean.

Bide ontatik asko egin dezakegu.